

# Gerezien denbora burujabetza digitalarentzat



**BEÑAT IRASUEGI IBARRA**  
KOOPERATIBISTA

**B**adaramat denbora tarte bat haserre egunerokoan inguratzen nauen errealitate digitalarekin. Mugikorren gehiegizko erabilera pertsonalak, seme-alaben hezkuntzaren *googleizazio* eta erabilera digital deterministak, erakunde publikoek korporazio digital erraldoien tresnekiko erakusten duten borondatezko sumisioak, eta oro har paisaia numerikoan ikusten den monokultibo kapitalistak sumindura zehaztugabea sortzen dit.

Mota guztietako eragile sozial, kultural eta politikoek eskatzen dizkidate datuak Google tresnen bitartez, edo harro jakinarazten, ustezko modernitatez, nirekin harremanetan jartzeko korporazio digital baten azken tresnan kontua ireki dutela, paisaia soziala haien logoekin betez. Nire pazientzia estrategikoa gaindituta dago.

Murgilduta nagoen eremu kooperatiboetan egoera ez da hobea, eta askok beste bide bat abiatu badugu ere, korporazio digitalen menpeko proiektugintza daukagu. Ekonomia soziala eraldatzaile, ekologista, feminista eta antiarrazista izatea erabat barneratu-

Lurralde digitala materiala eta politikoa dela aldarrikatu behar dugu, eta korporazio digitalen tresnen erabileraren inguruko kritika normalizatu

tako bide bihurtzen ari bada ere, ez da bera gertatzen digitalitatearekin. Nola askatu kapitalismo digitalarekiko menpekotasunetik?

Lehenik, lurralde digitala materiala eta politikoa dela aldarrikatu behar dugu, eta korporazio digitalen tresnen erabileraren inguruko kritika normalizatu. Izan ere, proiektu kolektibo eta eraldatzaileetan joera dute kanpo faktoreei egozteko digitalizazio eredu kontziente eta kritikoa ez izatearen ardura,

aitzakia gisa jarrita ezezagutza edota arrazoi teknikoak, eta ez politikoak.

Bigarrenik, elikadura, energia, zaintza eta bestelako eremuetan, burujabetzaren aldeko mugimendu eta proiektuek egin duten bidea jarraituz, gure bizitza eta lurraldeak emantzipatzeko ezinbesteko eremu bihurtu behar dugu teknologia burujabetza. Diskurtoak, estrategia politikoak eta proiektugintza eraldatzailea saretu eta aktibatu behar ditugu ildo horretan.

Hirugarrenik, Euskal Herrian opa-roa izan den eremu digitalean, bidea egiten ari diren proiektuei burujabetzarako erabaki esparruetan agentzia eman eta indartu behar ditugu, gure egunerokoan korporazioen menpekotasunetik ateratzea denontzat praktika irisgarria izan dadin.

Burujabetza digitalarentzat gerezien denbora lanketa kolektibotik ekarriko dugulakoan, sumindurak utzi, eta egunerokoan jarriko dut nire aletxo, EH Digitala, euskal fedibertsoa, euskarazko Wikipedia, TEKS elkarte eta Torrekua bezalako proiektu eraldatzaileetan. ●

40.  
URTERORRIA

## Arabako BERTSOLARI TXAPELKETA 2024

2. Finalerdia

**MARTXOAK 2, Larunbata 17:30ean**  
DULANTZI, Mikaela Portilla Kultur Etxean

Aitor Ugarte Eritz

Aroa Arrizubieta Barredo

Asier Otamendi Alkorta

Izar Mendiguren Cosgaya

Paula Amilburu Izargarni

Xabier Igoa Eritz

Gai-emaile: Marta Ugarte Abasolo  
www.bertsozale.eus - www.bertsosarrerak.eus